

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak bikotekako lehen lasterketa mistoa antolatu du Oñatin, berdintasunaren alde.

2011/04/18

Berdintasuna bultzatze aldera, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak pasa den ostiralean, apirilak 15, Oñatiko lehen bikote mistoen lasterketa antolatu zuen. Lasterketa arratsaldeko 19:30etan hasi zen eta **75 pertsonak** parte hartu zuten bertan. Benetan arrakasta izugarria lenengo edizioa izateko.

Lenengo edizio honetan Maider Gaztañagak eta Mitxel Cuadrado osatutako bikoteak irabazi zuen lasterketa eta ordainetan Zelai Zabala jatetxean afari bat irabazi zuten; lore sorta bat ere eman zieten. Helmugara iristen bigarrenak Nerea Etxeberria eta bere bikotea izan ziren eta eurek Soraluzen afari bat irabazi zuten. Hirugarren postuan, berriz, Estela Biain eta Jon Mikel Larrañaga iritsi ziren eta Forum dendan gastatzeko bonoa eskuratu zuten. Saskibakoiko nesken taldekideei, berriz, sari berezi bat eman zieten; Zubikoa Kiroldegian afari-merienda parte hartu zutenendako. Bestelako parte hartzaileendako ere hainbat sari zozketatu zituzten lasterketaren ondoren.

Antolaketan **Fakultateko Kirol Zerbitzuak**, bertako **Berdintasun Taldeak** eta **SNATU enpresak**, hau **LEINN** graduaren barruan sortua, parte hartu dute, eta baita Oñatiko Udalak ere lagundu du.

Lasterketaren berri blog honetan izan dezakezue www.berdintxiketan.wordpress.com .

